

ZERBITZU PUBLIKOAK - Irakaskuntza - Sukaldari eta Garbitzaileak

2021eko abenduaren 2a

MAHAI NEGOZIATZAILEA 21/12/02

LEPa

Iristear dago langile publikoen behin behinekotasun tasa jaisteko legea. Honen bidez plazak identifikatu eta laboralen esparruan **salbuespeneko deialdia** egin ahalko da, eta administrazioak oposizio faserik gabeko **merituen lehiaketa** burutzea erabaki du. Beraz, **azterketarik gabeko prozesua** izango da.

Sukalde eta garbiketa kolektiboan guztira **440 plaza jardun osoan** sartuko dira 2021eko abenduaren 31a baino lehen argitaratuko duten eskaintzan,

Sukaldetan 256

Garbiketa 184

Honekin administrazioaren datuen arabera behin behinekotasun tasa %3,74ra jaitsiko litzateke, legeak markatzen duen gehieneko %8a gaindituz. Salbuespeneko deialdi honetarako, ekaina baino lehen beste 25 plaza inguru sartu nahi dituzte.

Salbuespeneko deialdi bakar hau 2022ko abenduaren 31 baino lehen egin behar da eta prozesua gehienez **2024ko abenduaren 31a baino lehen bukatuta** egon behar da. Beraz hurrengo sei hilabeteen deialdiaren nondik norakoak negoziatu behar ditugu.

LAB sindikatuak bere aldetik, eskatu du,

- **Jardun erdian dauden plazak osoak izatera pasatzea**, hauek ere **eskaintzan sartzeko**. Era berean, estrukturalak diren **lan metaketa kontratuak estrukturalak** bihurtzea, hauek ere **eskaintzari gehitzeko**.
- **Deialdiaren nondik norakoak negoziatzea**, gure kolektiboan Hezkuntza sailarentzat lanean diharduten langileen eskarmentua saritzeko prozesua izan dadin.

Beraz, administrazioari deialdiaren proposamena bidaltzea eskatu diogu, prozesua ahalik eta azkarren argitu dadin. Urteetan iruzurrean egondako lanpostuak eta behin behinean egondako langileak finkatzeko ordua da.

Zalantzak badituzue jarri gurekin harremanetan. ANIMO ETA AURRERA !!!

<https://irakaskuntza.lab.eus/>

<https://irakaskuntza.lab.eus/sutagar/>

 **LAB Sukalde eta Garbiketa**

**MESA NEGOCIADORA 21/12/02
OPE**

Llega la ley para rebajar la tasa de temporalidad de los empleados públicos. Mediante la que se deberán identificar plazas y realizar una **convocatoria excepcional** en el colectivo laboral, la administración ha decidido llevar a cabo un **concurso de méritos** sin fase de oposición. Será, pues, un proceso **sin examen**. En el colectivo de cocina y limpieza se incluirán en la oferta **440 plazas** que se publicará antes del 31 de diciembre de 2021.

En cocina 256

En limpieza 184

Según los datos dados por la administración con esto se reduciría la tasa de temporalidad al 3,74%, superando el 8% máximo que marca la ley. Para esta convocatoria excepcional, se prevee incorporar unas **25 plazas más** antes de junio.

Esta **convocatoria** única de carácter excepcional deberá realizarse **antes del 31 de diciembre de 2022** y el proceso deberá estar **finalizado** como máximo antes del **31 de diciembre de 2024**. Por lo tanto, debemos negociar las bases de la convocatoria en los próximos seis meses.

LAB, por su parte, ha pedido:

- Que las **plazas de media jornada pasen a ser completas** para su inclusión en la oferta.

Asimismo, la conversión de **los contratos de acumulación de tareas en estructurales**, para añadirlos a la oferta.

- Negociar los términos de la **convocatoria** para que sea un proceso que **premie la experiencia del personal que trabaja en nuestro colectivo para el Departamento de Educación**.

Por lo tanto, hemos solicitado a la Administración que remita la propuesta de convocatoria para que el proceso se aclare a la mayor brevedad posible. **Es hora de consolidar los puestos de trabajo fraudulentos durante años y fijar al personal eventual**.

Si teneis dudas poneos en contacto con nosotras. Animo eta aurrera!!

<https://irakaskuntza.lab.eus/>

<https://irakaskuntza.lab.eus/sutagar/>

 **LAB Sukalde eta Garbiketa**



s.ingunza@lab.eus - 666 772 620
z.laboralabizkaia@lab.eus - 666 771 235
z.laboralagipuzkoa@lab.eus - 666 779 317

www.lab.eus